



**EBAZPENA, UPV/EHUko GERENTEARENA, 2026ko ORDAINSARIETARAKO % 1,5eko IGOERA AGINTZEKO DENA.**

**GERTAKARIAK**

**Lehenengoa.-** Abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege-dekretuak, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan premiazko neurriak onartzen dituenak, hau dio:

Artículo 2. *Incremento retributivo del personal al servicio del sector público para el año 2026.*

1. *En el año 2026, las retribuciones del personal al servicio del sector público podrán experimentar un incremento global máximo del 1,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2025, incluido en estas últimas el incremento retributivo aprobado en este real decreto-ley. Este incremento retributivo se considerará en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad de este y tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2026.*

2. *Asimismo, con efectos de 1 de enero de 2026, se aplicará, en su caso, un incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento, respecto a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2025, incluido en estas últimas el incremento retributivo aprobado en este real decreto-ley, si la variación del IPC en el año 2026 es igual o superior al 1,5 por ciento, que se abonará en el primer trimestre de 2027.*

*A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPC del año 2026, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE.*

3. *La masa salarial del personal laboral podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en los apartados 1 y 2 de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos periodos objeto de comparación.*

Errege lege-dekretuan zehaztutakoa oinarritzko arauditzat hartzen da, eta, beraz, bertan administrazio publikoetarako jasotako ordainsarien igoera estatuko sektore publikoko langileei ez ezik, autonomia erkidegoetako eta tokiko erakundeetako langileei ere ezartzen zaie.

**Bigarrena.-** Abenduaren 23ko 7/2025 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, 19. artikuluan xedatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsariak. Hau dio hitzez hitz:

1.- 2026. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko lan-kontratudunak ez diren langileen urteko guztizko lansariek ezin izango dute izan, 2025eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarritzko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik, homogeneotasunaren arabera kalkulatuta erkaketaren bi aldietarako, ez langileen kopuruari eta antzintasunari dagokienez, ez lanaldi-araubideari dagokionez.

2.- Lan-kontratudunak ez diren langileak sektore publikoko karrerako eta bitarteko funtzionarioak dira, bai eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoko estatutupeko langileak ere.

8.- Behin 2026ko ekitaldirako administrazio publikoetako funtzionarioen oinarritzko ordainsariak zehaztuta, Gobernu Kontseiluak zehaztuko du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 122.2.a.1 artikuluan erregulatutako destino-osagarriaren urteko zenbatekoa, bai eta gainerako ordainsari osagarriena ere, aurreko apartatuetan xedatutako irizpideekin bat etorriz.

9.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langile lan-kontratudunen soldata-masak, 2026ko urtarilaren 1ean, ezin izango du izan, 2025eko ekitaldian ezarritakoaren aldean, sektore

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY	Data / Fecha	11/03/2026 12:54:09
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiazta daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (JAVIER VARONA GUARAS)		
Egiatzipenerako URLa / Uri Verificación	<a href="https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY">https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY</a>	Orrialdea / Página	1/7





publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik, hargatik eragotzi gabe lanpostuaren edukian izandako aldaketetatik, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruan izandako aldaketetatik, programari ezarritako helburuen betetze-mailetatik edo lana antolatzeko sistemen edo sailkapenaren aldaketetatik eratorritako gehikuntzak.

13.- Lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinduen 2026ko ekitaldirako ordainsariak ezin izango dute izan, 2025eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik, antzinasuna dela-eta egokitu dakiekeenari kalterik egin gabe.

14.- Behin-behineko langileen ordainsariak, 2025eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean, ezin izango dute izan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik, antzinasuna dela-eta egokitzen zaien gehikuntza eragotzi gabe eta betiere haien ordainsariak erreferentziatuta dauden kategoriari dagokion diru kopuru osoa errespetatuta.

15.- Osagarri pertsonalek, osagarri iragankorrek eta zerbitzuagatiko kalte-ordainek arau berariazkoak izango dituzte. Kalte-ordain horiek ezin izango dute izan, 2025eko abenduaren 31n indarrean dauden aldean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenetan aurreikusitako gehikuntza globala baino handiagorik.


## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.-** Gerenteak eskumena du erabaki hau emateko, UPV/EHUren Estatutuen babesean eta UPV/EHUko errektorearen 2025eko urtarrilaren 27ko Erabakia dela bide (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko erabakia).

**Bigarrena.-** Abenduaren 23ko 31/2022 Legean, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, 19. artikuluko lehenengo atalean, zehaztuta daude soldatak eta hirurtekoak (12 ordainsari oinarri hartuta), eta hori ezarriko zaie urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuko 76. artikuluan xedatutakoa aplikagarri zaien funtzionarioei, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio eremuan sartuta badaude Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean edo hura garatzeko emandako Funtzio Publikoari buruzko legeetan xedatutako moduan. 2. atalean jasota dago eskuratuko duten zenbatekoa ekaineko eta abendu aparteko ordainsarietan, soldata kontzeptupean zein hirurteko kontzeptupean. Hauek dira 2026ko ordainsariak:

1.- Ordainsari arruntak:

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY	Data / Fecha	11/03/2026 12:54:09
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiazta daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (JAVIER VARONA GUARAS)		
Egiatapenerako URLa / Uri Verificación	<a href="https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY">https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY</a>	Orrialdea / Página	2/7






Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuko taldea/azpitaldea	Soldata - (euro)	Hirurtekoak - (euro)
A1	16.646,88	640,68
A2	14.394,24	522,48
B	12.582,60	458,40
C1	10.807,56	395,52
C2	8.994,96	269,28
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutua)	8.232,84	202,80

2.- Aparteko ordainsariak:

Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuko taldea/azpitaldea	Soldata - (euro)	Hirurtekoak - (euro)
A1	856,05	32,96
A2	874,83	31,74
B	906,26	33,03
C1	778,42	28,45
C2	742,75	22,20
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutua)	686,07	16,90

Irakasle funtzionarioen arloan, 23.BAT.C) artikulua lanpostu mailako osagarria zehazten du, lanpostuaren araberakoa.

<b>Lokalizatzailea / Localizador</b>	IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY	<b>Data / Fecha</b>	11/03/2026 12:54:09
<b>Araua / Normativa</b>	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	<b>Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento</b>	Otros
<b>Sinatzailea / Firmante</b>	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (JAVIER VARONA GUARAS)		
<b>Egiaztapenerako URLa / Uri Verificación</b>	<a href="https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY">https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY</a>	<b>Orrialdea / Página</b>	3/7






Maila	Zenbatekoa - (euro)
30	14.541,24
29	13.042,68
28	12.494,64
27	11.945,64
26	10.480,56
25	9.298,32
24	8.749,68
23	8.201,76
22	7.652,76
21	7.105,32
20	6.600,12
19	6.263,28
18	5.926,32
17	5.589,00
16	5.252,76
15	4.915,08
14	4.578,84
13	4.241,28
12	3.904,20
11	3.566,88
10	3.230,40
9	3.062,04
8	2.893,08
7	2.724,84
6	2.556,24
5	2.387,64
4	2.135,04
3	1.882,92
2	1.630,08
1	1.377,72

**Hirugarrena.-** Abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege-dekretua, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan premiazko neurriak onartzen dituena.

<b>Lokalizatzailea / Localizador</b>	IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY	<b>Data / Fecha</b>	11/03/2026 12:54:09
<b>Araua / Normativa</b>	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiazta daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	<b>Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento</b>	Otros
<b>Sinatzaile / Firmante</b>	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (JAVIER VARONA GUARAS)		
<b>Egiatzapenerako URLa / Uri Verificación</b>	<a href="https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY">https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY</a>	<b>Orrialdea / Página</b>	4/7





**Laugarrena.-** 1/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu Publikoarenak, 17.2.f) artikuluan dio Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela arauak eta gidalerroak ezartzea, urtero, hauek aplikatzeko: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta instituzionalaren zerbitzuko funtzionarioen ordainsari-araubidea eta administrazio horien zerbitzuko gainerako langileen soldata-baldintza

122.2.a).1 artikuluan, bestalde, zehaztuta dago lanpostuaren osagarria, kasuan kasuko lanpostuaren arabera ordaintzen dena.

**Bosgarrena.-** Abenduaren 23ko 7/2025 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.

**Seigarrena.-** 35/2026 ebazpena, otsailaren 24koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsarien 2026. urterako igoera onartzen duen ebazpena.

Honako oinarritzko ordainsari hauek jasoko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionario eta estatutupeko langileek:

- a) Soldata eta hirurteko gisa, 2026ko urtarrietik abendura bitarteko nomina arruntetan (zenbatekoak hamabi hilekori dagozkie):

Eplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuko taldea/azpitaldea	Soldata (euro)	Hirurtekoak (euro)
A1	16.646,88	640,68
A2	14.394,24	522,48
B	12.582,60	458,40
C1	10.807,56	395,52
C2	8.994,96	269,28
E	8.232,84	202,80

- b) 2026ko ekaineko eta abenduko aparteko ordainsari bakoitzeko, kopuru hauek jasoko dira soldata eta hirurteko gisa:

Eplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuko taldea/azpitaldea	Soldata (euro)	Hirurtekoak (euro)
A1	856,05	32,96
A2	874,83	31,74
B	906,26	33,03
C1	778,42	28,45
C2	742,75	22,20

<b>Lokalizatzailea / Localizador</b>	IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY	<b>Data / Fecha</b>	11/03/2026 12:54:09	
<b>Araua / Normativa</b>	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiazta daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	<b>Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento</b>	Otros	
<b>Sinatzaile / Firmante</b>	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (JAVIER VARONA GUARAS)			
<b>Egiatzapenerako URLa / Uri Verificación</b>	<a href="https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY">https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY</a>	<b>Orrialdea / Página</b>	5/7	



E	686,07	16,90
---	--------	-------


Hau izango da 12 hilekori dagokion lanpostu osagarriaren zenbatekoa 2026. urtean, lanpostu-maila bakoitzari dagokiona:

Maila	Urteko zenbatekoa (euro)
30	20.889,60
29	18.568,20
28	16.595,40
27	14.738,52
26	12.998,04
25	11.257,32
24	10.561,08
23	9.807,00
22	9.110,40
21	8.414,52
20	7.834,56
19	7.370,04
18	6.905,76
17	6.498,96
16	6.093,12
15	5.687,04
14	5.281,20
13	4.874,52
12	4.468,68
11	4.062,60
10	3.739,92
9	3.471,60
8	3.256,68

2026ko urtarilaren 1etik aurrera, hauek izango dira lehendakariaren, sailburuen, goikargudunen eta parekoen ordainsariak:

	Hileko soldata (euro)	Ordainsaria guztira (euro)
Lehendakaria:	8.712,64	121.976,96
Lehendakariordea	8.181,30	114.538,20
Sailburua	7.766,63	108.732,82
Sailburuordea	7.028,98	98.405,72
Zuzendaria	5.993,79	83.913,06
Cojua-ko kidea	5.993,45	83.908,30

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY	Data / Fecha	11/03/2026 12:54:09
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (JAVIER VARONA GUARAS)		
Egiaztapenerako URLa / Uri Verificación	<a href="https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY">https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY</a>	Orrialdea / Página	6/7





Lehendakari pentsioduna	4.356,34	60.988,76
Sailburu pentsioduna	3.883,34	54.366,76

Konfiantzazko langileen ordainsariak % 1,5 igoko dira 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko langile lan-kontratudunen ordainsariak % 1,5 igoko dira 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Osagarri pertsonalak eta iragankorrak, baita zerbitzuarengatiko kalte-ordainak ere, beren araudi espezifikoaren arabera arautuko dira, baina 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera ezingo dira % 1,5 baino gehiago igo haien zenbateko indibidualak, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Halaber, ordainsari-kontzeptu batzuk erabaki honetan xedatzen denetik salbuetsita geratuko dira, baldin eta haien araubideak, aplikagarri zaien araudiari jarraituz, baztertzen badu ordainsari-igoera orokorraren bidez eguneratzea.

## EBAZPENA

**Lehenengoa.-** UPV/EHUko funtzionario eta lan kontratadun langile guztien ordainsariak % 1,5 igotzea 2026. urteari dagokionez, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, eta ebazpen honetan zehaztutakoari jarraikiz. Atzerapenak 2026ko martxoko nominan ordainduko dira.

**Bigarrena.-** Argitaratzea ebazpen hau UPV/EHUren webguneko Gardentasun Atarian.

UPV/EHUko GERENTEA

## ERREKURTSOAK

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta beraren aurka aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango zaio gerenteari hilabeteko epean edo administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da administrazio auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, epeak kontatzen hasiko direlarik ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY	Data / Fecha	11/03/2026 12:54:09
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiaztatu daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (JAVIER VARONA GUARAS)		
Egiaztapenerako URLa / Uri Verificación	<a href="https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY">https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH2O2I35VIXCHC2A4W4HXPIY</a>	Orrialdea / Página	7/7

